

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Baterako proiektu batean parte hartuko du Nafarroak, euskararen adierazle sistema bat egiteko

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Frantziako entitateek ere parte hartuko dute programan, helburu izanik jakitea zein den euskararen errealitate soziala hiru lurraldeetan

Jueves, 04 de febrero de 2016

Euskararen adierazle sistema bat egiteko proiektu batean parte hartuko du Nafarroak; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Frantziako entitateek ere parte hartuko dute programan, helburu izanik jakitea zein den euskararen errealitate soziala hiru lurraldeetan.

Zehazki, proiektu honetan Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin eta Akitaniako (Frantzia) Departamentuarekin batean ariko da lanean Nafarroa, Euskararen Erakunde Publikoaren bidez.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak onetsi du EAS (Euskararen Adierazle Sistema) Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea entitate horiekin. Lankidetzarako Europako Programari (POCTEFA) aurkeztu zaio proiektuaren finantzaketa, eta duela gutxi gorabehera urte bat hasirik, aurreikusia dago maiatz-ekainean ebaztea.

Aurrekontua, guztira, 598.488 euro da. Zenbateko horretatik 389.017 euro Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) ematea espero da. Nafarroari dagokionez, 2016rako eta 2017rako aurrekontua 91.375 euro da, eta aurreikusitako diru-sarrera 59.394 eurokoa, EGEFen ekarpenari dagozkionak.

Adierazleek elementu amankomunak izanen dituzte hiru lurraldeetan, eta honako hauen gaineko datuak izanen dituzte, besteak beste: euskaraz dakiten pertsonen kopurua, erabilera soziala, hizkuntzaren jakite maila, ikasteko modua (haurtzaroan, eskola garaian, helduaroan), pertsonen kultur produktzioa eskuratzeko duten aukera, eta beste faktore batzuk. Inkesta eta udal erolden bidez datu horiek bildu ondoren, informazioa argitaratu eta lurralde bakoitzeko hizkuntza politiketan aplikatuko da.

Hauexek izanen dira jarduteko eremuak: identifikatzea zer adierazle linguistikok ahalbidetzen duten euskara bere lurralde osoan deskribatzea eta birbaloratzea; egitura bat taxutzea, ahalbidetuko duena tresna bat garatzea adierazle linguistikoaren aplikazioa sistematizatzen; proiektuaren emaitzak partekatzea eskualdeetako hizkuntzekin; eta adierazleak beren errealitate linguistikoetan aplikatu daitezela erraztea.

Epe luzean, plan honen helburua da sistema hau aplikatzea Europar Batasuneko beste eskualde batzuetako errealitate linguistikoan, eta,

horretarako, Hizkuntza aniztasuna sustatzeko Europako sarea erabiliko da, Nafarroako Gobernua haren kide baita.

Gogoan izatekoa da 2012ko uztailean Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako kontseilariordeak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu zutela, euskararen errealitate soziala ezaqutzeko, eta proiektu honek seqida ematen diola hari.